

BERRIGARA

126. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara

1993, azaroak 12

GAZTETXEA:
25 LAGUN
BERTAN
ENTZERRATU
DIRA

ZUBIETAKO
AUZOKIDEAK
BEREN
ETXEEN
ETORKIZUNAZ
KEZKATI

KIROLAK

GIMNASIA
ERRITMIKAKO
EUSKADIKO
TXAPELKETA
ZAPATUAN




90 bergarar
Behobiatik Donostiara

THE

LOOK



Burberrys
OF LONDON



egizabal



CARTUJANO

Dr MARTENS

PEYTON

PANAMA JACK

HALTZARI



FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA

Bolu, 24 behea

Tfnoa eta faxa: (943) 76 30 57

BERGARA

(Gipuzkoa)



SUKALDERAKO ALTZARIAK



6 URTEKO GARANTIA

INGELES HASTAPEN IKASTAROAK

HUTSETIK HASI NAHI DUTENENTZAT




**7.30etan eta
19.30etan.**

THE DOOR TO

LA PUERTA AL INGLESen

LA PUERTA AL



Burdiñate, 5 ☎ 76 30 01.

Ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.30.

"Ingelesa erakustera etorri gara. Anima zaitetz eta etor zaitetz guregana!!"

EZ AHAZTU, BITARTEKO MAILAK ETA HOBEBUNTZAKOAK ERE BADITUGULA

Argitaratzailea:

Jardun Elkartea
Errotalde Jauregia, 20.570
Bergara. ☎ 76 08 19

Berrigara

Tfnoa. eta Faxa: 76 03 97

Babeslea: Bergarako Udala.

Zuzendaria:

Gorka Elorza.

Erredakzioa

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil
eta Mikel Elkorobereizbar.

Maketazioa:

Eneko Azkarate eta Eduardo Mendibil.

Publizitatea eta harpidetzak:

Alex Azkarate eta Edurne Arenaza. ☎ 76 03 97

Erredakzio-kontseilua:

Iñaki Eraña eta Alex Labaien.

Kolaboratzaileak: Jose Angel Miko, Estepan Plazaola, Miguel Angel Elkorobereizbar, J. M. Elexpuru, J. Oregi, Maripi Laskurain, N. Alzelai, Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, M. Lizarralde, M. Belastegi, A. Aretxaga, A. Bikuña, A. Madinabeitia, J. eta A. M. Goenaga.

Argazki laborategia:

Pol-Pol Argazki Taldea eta Kifu.

Komikia eta marrazkiak: Josu Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Ofati).

Banaketa: Txantxangorri Taldea.

Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 3.300 ale.

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

PROTAGONISTAK



Gaztetxea uzteko epea astelehenean amaitu zitzairen gazteei. Erabaki horren aurka, hainbat protesta ekitaldi izan dira astean zehar; 25 bat gazte Gaztetxean entzeratuta daude astelehenean eta, astartean, Lanbide Hezkuntza eta Batxilergo Institutuko ikasleek greba egin zuten beren elkertasuna adierazteko. Eguerdian manifestaldia egin zuten, Bergarako Udaletxearen, Elizbarrutiaren eta Epaitegiaren aurka oihukatuz. Gaztetxeak ez du Epaitegian agertutako pintaden erantzunkizunik hartu. Bestalde, igandean Su ta Garren kontzertua izan bazen, gaur ostiral gauerako herriko taldeen kontzertua iragarrita dago.

25 gazte Gaztetxean entzerratuta lokala uztearen aurka protestatzeko

ITURRI ONETIK

Zerbitzu sozialak bateratu

Udalak eta Diputazioak Ongizate Zerbitzuaren funtzionamendua aldatzeko hitzarmena sinatu zuten iaz. Atzo aurkeztekoak ziren aldaketak: zerbitzuak bateratu eta 3 programa bereiztuko dira hemendik aurrera: Informazioa eta Balorazioa batetik, Familia eta Elkarbizitza (Emakumearen Laguntzarako Zerbitzua hemen integratuko litzateke) bestetik eta, azkenik, Prebentzioa, Gizarteratzea, Lankidetzeta eta Borondatezko langileak.

ESAN DUTE

"Krisia nabari da, bai. Merkaturā, orain dela 4-5 urteko egoerarekin konparatuz, zeharo jeitsi da, % 26a gutxi gorabehera. Dena den, krisia egon arren, jendeak zurrumuruak entzuten ditu eta beldurtu egiten da berehala.

Eta krisiaz gain, gure sektorean dagoen kompetentzia haundia ere nabaritzen da; jendea oso exijentea da eta prezio onaren bila dabil".


MIKEL MADINABEITIA
Bergarako OPELeko kotxe saltzailea
EUSKADI IRRATIA

"Aitor Elkorok egundoko lana eman zidan. Sinistu ezindako jipoia hartu nuen larunbateko partiduan".

INAXIO ERRANDONEA
Pelotaria
EL DIARIO VASCO



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jauriaritzako Kultura eta Turismo sailaren laguntza jaso du

Atseden zentrua

LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

ZUBIETA

elektragarritza

- ✓ Motorren bobinaketa
- ✓ Era guztietako instalakuntzak

Kruz Gallastegi, 2 behea
Tfnoa: 76 23 48

IRRINTZI

Kafetegia
Kafea da gure berezitasuna

☎ 76 20 50



MADREGILDA

Larunbata: 22.30.
Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.
Astlehena: 19.30.



EL EJERCITO DE LAS TINIEBLAS

Ostirala: 22.30
Larunbata: 17.00, 19.30.



EL ALIENTO DEL DIABLO

Osteguna: 19.30.

Zinea

▼▼ **Juan Echanovek**
Donostiako Zinemaldian interpretazio saria eraman zuen filme honetan eginiko lanagatik. **Francisco Regueirok** zuzenduta, Francoren ikuspegi guztiz diferentea ematen zaigu.

▼▼ **Jenero** fantastikoak ere bere tarte izango du astebukaeran. *Conan* eta horrelako *comic* eta filmeen ildotik, etengabeko borrokak, amodioa, ohorea... etab. nahastuko dira akziozko filme honetan.

▼▼ **Elias Kerejetari**
Donostiako Zinemaldian ekoizle onenaren saria suposatu zion filma. **Erdi Aroan** girotutako istorio honetan, **Valentina Vargas, Fernando Guillen** eta **Alexander Kaidanovski** dira protagonista nagusiak.

Deiak

▼ **Margo erakusketa.** Pello Alberdi, Ricardo Azkargorta, Bingen De Pedro eta Zenitaniren lanak Kultur Etxean.

▼ **Abdon Juaristiren** ikasleen margo erakusketa Nahikari tabernan.

▼ **Pello Alberdi** margolari elgetarraren erakusketa Bilboko Berta Belaza galerian (Arriquirar Plaza, 5) azaroaren 30era arte.

▼ **Odol ematea** asteazkenean, hilak 17, Seminarioko baxuetan 7etan.

▼ **Matinala.** "Aguila de acero 3" filmea igandean 11.30etan Novedadesen.

Ogia

▼ **Igandea 14:** Bolintxo.

GOARDIAKO FARMAZIAK

- ▼ **Larunbata 13:** Estella.
- ▼ **Igandea 14:** Estella.
- ▼ **Astlehena 15:** Mozos.
- ▼ **Asteartea 16:** Camacho/Corcuera.
- ▼ **Asteazkena 17:** Puy/Irizar.
- ▼ **Osteguna 18:** Guallar/Amezua.
- ▼ **Ostirala 19:** Estella/Morales.

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA
☎ 79 91 82 ARRASATE

SURPE
Taberna


Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA

LARREA

TABERNA

Kale Barren 17
ANTZUOLA

PERNANDO BIZIRIK HAGO ORAINDIO



▼▼ "Pernando, bizirik hago oraindio" lana antzeztuko du Debako **Goaz** antzerki taldeak igandean arratsaldeko 7etan Zabalotegiko aretoan. Xabier Mendiguren Elizegik idatzitako antzerki lana estreinatuta dutenetik urtebete pasa denean, 30 emanaldi inguru eginak dituzte dagoeneko debarrek. Mendigurenen testuak, Euskaltzaindiaren 1988ko Toribio Alzaga saria jaso zuen. Antzerki zaletuak direnek, eta ez izanda ere igande arratsaldea primeran pasatzeko gogoia dutenek, Zabalotegiko dorrepean dute zita.

KIROL KARTELDEGIA

FUTBOLA

BERGARA-UDA

Lehen errejionala. Larunbata, 15.45. Ipintzan.

BERGARA-UDA

Lehen mailako jubenilak. Larunbata, 17.30. Ipintzan.

BERGARA-AMAIKAK BAT

Lehen mailako kadeteak. Igandea, 15.30. Ipintzan.

BERGARA-INTXURRE

2. mailako kadeteak. Igandea, 11.30. Ipintzan.

BERGARA-ARRASATE

Lehen mailako infantilak. Igandea, 10.00. Ipintzan.

ESKOLA KIROLA

Futbol-7 txapelketaren hasiera larunbat goizean Ipintzan.

ESKUBALOA

BERGARA-ANDOAIN

Jubenil mailako neskak. Igandea, 11.00. Kiroldegia.

BERGARA-ALOÑA MENDI

Senior mailako mutilak. Igandea, 12.30. Kiroldegia.

PELOTA

BERGARA-Athl. SAN SEBASTIAN

Jubenil mailako mutilak. Larunbata, 11.00. Kiroldegia.

ARANZADI IKASTOLA-SAN VIATOR

Infantil mailako mutilak. Larunbata, 12.30. Kiroldegia.

5

PROFESIONALAK

- Ansotegi eta Lasa III / Koka eta Oliden.
- Alustiza eta Errandonea / Galarza III eta Balerdi.
- Telletxea eta Andueza V / Kalonge eta Andueza VI.

Larunbatean,
16.30etan Udal
Pelotalekuan.



Alustiza eta Errandonea.

Mujika Jantxidenda

Barrenkale 1, Tfnoa: 76 29 91



Urteaga 9 ☎ 76 18 45

Mari Carmen ARRAINDEGIA

Arrain freskoak,
izoztuak eta mariskoak

Kruz Gallastegi
☎ 76 15 90 / 76 40 73

**Sierben agurra
Bergarari**

"Lagun batek aldegiten duenean bihotza erdibitu egiten da" dio kantak. Barnetik eta kanpotik erdibituta esaten dizuegu "Agur". Zuen artean emandako denboraren ondoren ehungarren urteurrena ospatzera gindoazela, gure egutegia bapatean etena izan da. Baina honek ez du esan nahi dena bukatu denik, ez, gure oroitzenen eskertuak iraungo baitu, banantzen gaituzten denbora eta distantzia luzeak izanda ere. Zuen aldetik etengabe jaso ditugun harrera, maitasuna, eskuzabaltasuna eta hainbat gauza on ez ditugu erraz ahaztuko. Esker oneko hitzak besterik ez daukagu beti gure ondoan egon den herri honentzat.

Dena jasota geratuko da gure erakundearen historian, ondorengo belaunaldiek estima dezaten zer izan den Bergara bere monjentzat... Albistea jakin zenean izan zenuten berehalako erreakzioa zuen sentimentu zintzoen ezaugarri da. Honek are zailagoa egiten digu aldentzea, baina aldi berean barne pozez betetzen gaitu, hutsik ez dugula egin egiaztatzen baitigu, berriz ere.

Egunkariak zuen sentimentuen berri eman eta albistea zabaldu du. Hori dela eta denok dakizue gure aldegitia pertsonal falta dela kausa gertatu dela, eta ez, hasieran uste izan zen bezala, diru arrazoiengatik. Alde honetatik inoiz ez da arazorik izan, zuen eskuzabaltasuna beti ondoan izan baitugu. Zenbat izen aipa genitzakeen hemen! Baina isilpean gordetzeko eskaria errespetatuko dugu. Zuen baratzetako onenak jasotzen ohituak gaukazue, zuen familia ospakizun pozgarrietan partaide egin gaituzue eta zorretan utzi gaituen abar luzea.

Jaungoikoak lerro okerrekin zuzen idazten duela diote. Horregatik gaude gure gaisoei behar duten laguntza eta kontsolamendu faltarik izango ez dutelakoan. Gure oroitzenen eta otortza beti zuen ondoan izango dituzue.

Gure hutsegiteengatik barkamena eskatzen dizuegu, izan ere, borondate txarragatik baino giza ahuleziagatik izan dira.

Agur danori.

Sor Pureza Garmendia

**BERRIGARAKO
GUTUNAK**

Gutunak sailera bidalitako kartak identifikatuta bidali beharko dira BERRIGARAKO Erredakziora eta izen eta abizenarekin sinatuta argitaratuko dira.

Talde bat baldin bada idazlea, taldearen izena eta partaide baten izen eta abizenak bidali beharko dira.

Bestalde, karten luzera 30 lerro baino gutxiagokoa izatea eta, ahal izanez gero behintzat, makinaz idatzita bidaltzea eskatzen da.

*BERRIGARAKO
ERREDAKZIO
KONTSEILUA*

Tiira ba!

Josu Okina




1944 eta 57an jaiotakoen eguna

Azaroaren 27an 1944 eta 1957an jaiotako bergararren anaiarteko eguna ospatuko da. 1944koek Errekin egingo dute afaria eta aurretik izena eman beharko dute Zer Nai tabernan (760818 telefonoa zenbakia) edota Sanchez ileapaindegian (762370). 1957koak, berriz, Antxonin bilduko dira afaltzeko eta Intxortan egin dezakete izen-ematea.

Dantza ikastaroa

Azaroaren 24era arte luzatu da Idolaz Antzuolako euskara taldeak antolatutako trikitixa, arin-arin eta fandango ikastarorako izena emateko epea. Interesatuak Antzuolako liburutegian, Itzar liburudendan edota Gaztetxera jo dezakete.



Asteazkenean Eneko Landaburu mediku hijienistak hitzaldia eman zuen Kultur Etxean.

Drogaren arazoa prebenitzeko ihardunaldiak Kultur Etxean

Asteartean hasi ziren Kultur Etxean Udaleko Drogomenpeketasunen Prebentziorako Batzordeak antolatutako *Drogak al dira arazoa?* izenburuko ihardunaldiak. Antolatzaileran esanetan, "prebentzio ihardunaldi batzuk lirake hauek. Beste enfoket bat eman nahi izan diegu eta osasunak duen garrantzia aztertu. Arazoa nola gaintitu jakitera jo dugu".

Astearteko aurkezpenean jende ugari bildu eta partaidetza bestetan baino haundiagoa izan zen antolatzaileran eritiziz; "drogarena guztion arazoa dela esaten da baina praktikara eramatea ez da batere erreza. Gu bideak jartzen saiatu gara eta edade guztietako jendea hurbildu da. Garrantzitsuena norberak bere eritzia eman eta besteena entzutea litzateke. Ko-

munikazioa bultzatu inor marjinatu barik".

Ihardunaldiekin jarraituz, datorren astean *El precio de la ambición* bideoa emango da asteartean 7etan Kultur Etxean, asteazkenean Antonio Palomar medikuarren hitzaldia eta Oihulari clown taldearen parodia eta, azkenik, ihardunaldien balorazioa eta ondorioak eta Lujanbio eta Irazu bertso-lariak ostegunean.

Epele-Kanpazar abendurako

Abenduaren 25erako, Natibitate egunerako, bukatzea espero da Epele eta Kanpazar lotuko dituen errepide berria. Joan zen ostiralean Gipuzkoako Diputazioko ordezkariak izan ziren obrak bisitatzeko. Tartean Eli Galdos Diputatu nagusia eta Victoriano Gallastegi Bergarako alkatea. 4 kilometro inguruko bariante berriak bi karril eta ibilgailu geldoentzako beste bat izango du (13 metroko zabalera izango du guztira).

Sara baseritik Elorrioruntz egingo den tunela Bizkaiko Diputazioak egingo du. Gogoratu dezagun errepide berri hau egiteko, Artzubi eta Zeleta baserriak bota zirela eta lanak 1.361 milioi pztan adjudikatu zirela.



Ordezko Zerbitzua Gurutze Gorrian

Deba Garaiko Gurutze Gorriak jakin arazi duenez, 1976/77an jaio eta 1995an Borondatezko Ordezko Zerbitzua egin nahi duten gazteek beren berri eman beharko dute 765576 telefonoan abenduaren 31a baino lehen.

Argazki rallya

Pol-Pol Argazki Taldeak argazki rallya iragarri du azaroaren 21erako. Partaideek 35 mm.ko 100 ASA diapositibak erabili beharko dituzte eta izen-ematea egunean bertan egin beharko da goizeko 8.30etatik 9.30etara Pol-POL Mendizale Taldeko lokaletan. Azaroaren 30ean berriz, errebelatutako karretak jasoko dira 19.00etatik 21.00etara.

Hiru dimentsiotako koadroak

Elgetako Udaleko Kultur Batzordeak hiru dimentsiotako koadroak egiteko ikastaroa antolatuta du. Izena emateko azken eguna azaroaren 16a duzue.

Argazkilari sarituak

Jose Luis Feo Pol-Pol Argazki taldeko kideak diapositiba onenaren saria jaso zuen Eibarko Argazki Rallyan. Benito Cantero, berriz, 2. saria eskuratu du Gernikako Mendiko Argazkien Lehiaketan.



Juantxo Madariaga (bigarrena ezkerretik) Kapirixoko presidente izango da.

Kapirixoren lehen asanblada

Oraingoz 120 bazkide ditu, bergararrak gehienak

Joan den ostiralean Deba Garaiko Kultur Ondarea babesteko sortu berri den Kapirixoko taldearen lehen Asanblada Orokorra burutu zen UNEDen. Bertan, izena (Kapirixoko) eta elkartearen estatutuak onartu ondoren, Batzorde Eragilea hautatu zen. Batzarrean izandako 35 bat kideek erabaki zuten, Juan txo Madariaga izango da taldeko presidentea eta Anaje Narbaiza idazkaria.

Datozen egunetan herri bakoitzeko bokalak izendatuko dira eta Juan txo Madariagaren hitzetan berehala lanean hasteko asmoa daukate; *"hasiera batetan Oñatiko Murgariluzeko meniraren arazoa, Bergarako arau subsidiarioak eta Maltzaga-Urbina ardatza ikutu nahi ditugu. Erantzun ona jaso dugu jendearen partetik (Oñatin eta Bergaran batez ere) eta lane-*

rako gogoia ere badaukagu. Pixkanaka pixkanaka taldearen barruan sail ezberdinak bereiztuko dira eta denon arteko eztabaidarako tarteak ere izango dira".

Kapirixok Arkeologia, Arkitektura, Arte, Dokumentazioa, Etnografia, Ingurua, Museoa eta Ondare Historikoa sailak sortzeko asmoa azaldu zuen bere aurkezpenaren egunean.

Gaur egun Kapirixok 120 bazkide inguru ditu (horietatik 40 bat bergararrak) eta urteko kuota 3.000 pta.koa da. Langabetu, ikasle eta jubilatuek 500 pta. ordaindu beharko dute eta familia berean bi kide edo gehiago izanez gero prezio murrizketak izango dira.

Bazkide egiteko interesa dutenek UNEDera edota 761342 telefono zenbakira jo dezakete informazio eske.

LAZKANO

Oinetakoak

Barrenkale 15, Tfnoa: 76 25 03
BERGARA

LONBIDE
OINETAKOAK



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 BERGARA



100 urtetik gora duten etxeak bota beharrean konpontzea eskatzen dute Zubietakoek.

Zubietako auzokideak kezkatu

Arau Subsidiarioen arabera erreka ertzeko etxeak botako dira

"Orain dela 40 urte egon zitezkeen arrazoiak, gaur egun ez dute indarrik eta horregatik eskatzen diogu Udalari, Zubieta kaleko 1 zenbakitik 31ra doazen etxeak, ez ditzala Arau Subsidiarioetan ordenazioz kanpo utzi eta, ondorioz, ez ditzala etxe horiek bota. Bota beharrean, 100dik gora urte dituzten etxeak konpondu eta berritzeko ahaleginak egin beharko lituzkeela uste dugu". Horixe azaldu zuten asteazkenean, prentsaurrekoan, Zubieta kaleko auzokideen ordezkariak.

Gogoratuko denez, behin behinako onarpena eman zien Udalbatzak Arau Subsidiarioei joan zen ekainean. Arau Subsidiarioetan jasotzen denaren arabera, Zubieta kaleko 1 zenbakitik 31ra bitarteko etxeak ordenazioz kanpo geratzen dira eta, ondorioz, 39 etxebizitza,

13 merkataritza etxabe, 2 garaje eta elkarte gastronomiko bat, bota egingo dira. "Erabaki honek 180 pertsonarengan eragin zuzena du", adierazi zuten Zubietako auzokideek.

San Antonio eta Zubieta kaleak bi norabideetan lotzea eta Bolu inguruari irteera bat ematea da Udalaren helburua. Zubietako auzokideen ustez, "azken urteetan barriantea eta Maixiategi egin dira, beraz, beste irteera batzuk badaude eta bestalde, Zubieta zabalduko balitz ere, Mugertza gainean eta Masterreka Iean bidea estutuko litzateke eta ez litzateke arazoa konponduko. Hori gutxi balitz, Zubieta kaleko 1 eta 3 etxeak botako balira ere, Infernukua eta erreka-aren artean ez litzateke tokirik egongo bi norabideetako kaminoa egiteko".

Mus txapelketa

Larunbatean, Egineko IV. Mus Txapelketako Bergarako finala jokatu da arratsaldeko 4retan Artatse elkartearen 4 bikote onenak Gipuzkoako finalerako sailkatuko dira.

Eguzkiren eskaera

ENRESA hondakin erradiaktiboen enpresa nazionala Estatu guztian zehar sakabanaturik dauden tximistorratzak jasotzen ari da. Lan hori ahalik eta arinen egiteko, Eguzkik hainbat eskaera egin dizkio Bergarako Udalari, herrian diren tximistorratz erradiaktibo guztien zentsua egin eta ENRESAri bidaltzea, besteak beste.

BOTAREN

kontzentrazioa

Bergarako BOTA talde antimilitaristak gipuzkoar intsumisoei aurka egiten ari diren epaiketen aurkako enkartelada egingo du larunbatean, hilak 13, 12etan Epaitegiaren aurrean. Ondoren bermuteo popularra izango da. Egunean bertan, Donostian, 6etan egingo den manifestaldira joateko, Pol-Pol edota Popisen eman daiteke izena.

Artekalea zabaldu

Udaletxean egiten ari diren berritze lanengatik azken hilabetetan itxita egon den Artekalea trafikorako zabaltzekoa zen gaur.



LILURA

**EDERTZE
INSTITUTUA**

Bidekurutzeta, 7
☎ 76 31 71
BERGARA



GAZTEEN MODA!

Bizkai Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa; 77 14 24

Bergarako Kristau Elkarteak Sierbak agurtu zituen larunbatean

Santa Marina bete egin zen azken 96 urtetan gure artean izan diren monjak agurtzeko

**Larunbat
eguerdian Sierbak
agurtzeko meza
izan zen Santa
Marinan.**

Jende asko bildu zen azken 96 urtetan gure herrian lan benetan aipagarria bete duten monjei omenalditxo bat eskaintzeko asmoz. Meza ostean, Bergarako Kristau Elkartearen plaka bat eman zitzaion monjei denbora luze horretan egindako lana eskertuz eta, horrez aparte, monjek Bergarako Santo Kristoaren irudi bana jaso zuten gure herriaren oroigarri gisa.

Monjen izenean, Bergaran 17 urte eman dituen Sor Purezak eskerrak eman eta Bergara beti go-goan izango dutela adierazi zien Santa Marinan bildutakoiei.

Aurten 10 monja izan dira gure herrian. Bost monjak alde egin dute dagoeneko (3 Portugaleterra, 1 Bilbora eta bestea Segoviara) eta gaur ostirala beste 3 joateko ziren (Sor Buen Suceso Segoviara, Sor Purificación Santiagora eta Bergaran 17 urte eman dituen Sor Pureza Azpeitira). Azken



Sierbek larunbatean jasotako omenaldiaren irudi bat.

biak (Monjen burua eta Sor Angela), berriz, momentuz Bergaran geratuko dira Donostiara joan bitartean.

**"Goitik
datozkigun
aginduak bete
behar"**

Pena haundiz joan omen dira monjak Bergararik. Segoviara joatekoa den Sor Buen Sucesok aipatzen digun bezala, "guztiori kostatzen zaigu alde egitea. Baina zer

gingo dugu, ba? Obeditu egin behar dugu eta goitik datozkigun aginduak bete".

Beren destinu berrietan, orainarte bete dituzten funtzioak betetzen jarraituko dute. *"Horrela da, bai. Ordenu honen betebeharra berdina da mundu zabalean. Gaixoak atendidu, injekzioak jarri, tentsioa neurtu, zauritxoren bat osatu,.... Jaungoikoak osasuna eta bizitza ematen badigu behintzat, horrelako lanekin jarraituko dugu".*

Sor Buen Sucesok urtebete eskas darama gura artean. Hala ere, esker hitzak besterik ez ditu Bergaran jaso duten tratua adierazteko. Joan den uztailean, esate baterako, 4.345 firma batu ziren gure herrian monjak bertan jarraitzeko eskatuz. *"Benetan jendea oso ondo portatu da gurekin. Egun hauetan ere bisita mordo bat izan dugu eta harriturik gaude. Oso pozik gaude eta ezin izango dugu Bergara inoiz ahaztu".*

AGOITZ
Tapizdenda

San Lorentzo 25, Tfnoa: 76 11 58
BERGARA

SANTOS IRRATI-TB
ELEKTRO TRESNAK • ARGIZTAPENA

Zuek®

Sukalde altzarien erakusketa

Masterreka, 2 BERGARA ☎ 76 26 10

Igande honetan izango da Behobia-Donostia lasterketa popularra eta horrekin batera urte osoan zehar entrenatzen aritu diren herriko korrikalariek euren sasoa jendearen aurrean neurtzeko aukera ezin hobea dute. 90 korrikalarik eman dute izena. Guztien helburua lasterketa amaitu eta lagun arteko egun alaia igarotzea izango da.

Animo, 20 km dira eta...

90 bergarrek hartuko dute parte igandean Behobia-Donostia lasterketan

Agorrosineko igerilekuak herriko korrikalarien topagune bihurtzen dira. Egunean zehar, batez ere arratsaldean, igerilekuetako aldagelak adin ezberdinetako korrikalariz betetzen dira. Are gehiago azken hiru hilabetetan, orain jokatu berri den Donostiako maratokia eta Behobia-Donostia lasterketaren prestaketarekin kirol zaleak asko gehitzen baitira.

Igerilekura hurbildu ginenean, iluntzeko 8ak inguruan, gimnasio ondoren aintxintxika egin ondoren gorputza erlajatzeke egin behar diren ariketak egiten "harrapatu" genituen. Txeles, Salva, Manolo, Anton eta Miguel Angelekin Donostia-Behobiari buruz berba egin genuen, guztien artean 20 Behobia korritu baitituzte.

Zer du bada Behobia-Donostiak?

Gipuzkoan egiten den lasterketarik jendetsuenak zer duen galdetu diegu: "lasterketa ez da oso luzea eta proban zehar

asko sufritzen den arren jendearen animoak asko laguntzen du eta dudarik gabe probarik emotiboen da".

Horrelako proba korritzeko, kontutan izan behar da 20 km dituela, beharrezkoa da prestakuntza fisiko egokia izatea. "Bai, astean zehar gutxienez 3 aldiz entrenatzen dugu eta azken bilabetean ona izaten da Maltzaga alderuntz joatea, bidean zehar Soralezeko bariantean dagoen aldapa igotzea Behobiarako nola zauden jakiteko test ona izaten baita" dioskue. Dena den astean zehar badute zirkuito bat, igerilekutik sagardotegira joaten dira eta gero handik trenbide zaharraren bidea aprobe-txatuz Labegaraietan dagoen Zabala tabernara joaten dira 8 km inguruko zirkuitoa eginez.

Lehen adierazi dugun moduan Agorrosineko igerilekuetan biltzen dira herriko korrikalaririk gehienak eta horrek euren arteko harremanak estutu egin ditu. "Gure taldeak denbora asko darama elkarrekin korrika egiten eta urtean zehar hainbat

elkartetan lagun arteko afariak izaten ditugu eta hori da onena guretzat" diote.


Korrika egiteko jan aldetik pixka bat zaindu beharra dago eta hauek denetarik jaten duten arren, gehienbat fruituak, berdurak eta pastak jaten di-

tuzte. Atletaren elikadura zaindu beharra dago eta horrezaz gain lesioak ez izateko korrika egin baino lehen berotu beharra dago. Halere eurek diotenez lesioak izaten dira "normalenak fibren hausketa eta tendinitisak izaten dira. Belaunek ere asko sufritzen dute, hainak asko kargatzen baitira eta hortik etortzen dira tiroiak eta tendinitisak".

"Gure artean lasterketa txikiak izaten dira"

Korrikalari hauek zaletasunagatik aritzen dira eta esatebaterako Txeles 54 urtekoa 38 urtekin hasi zen korrika egiten eta Manolo ere duela 4 urte hasi da aintxintxika egiten "orain jubilatzea tokatzen zait. Duela lau ur-





BEHOBIA-DONOSTIA PROBAKO PERFILA eta FITXA TEKNIKOA:

LUZERA: 20 Km. (Batzuk diotenez 100 m. gehiago).

BUKATZEKO EPEA: 2 ordu 15 minutu (Gehiago egin ezker ere sailkatu ohi dute)

GAINAK: Gaintxurizketa (90 m.), Mirakruz (45 m.).

tera arte bizikletan ibiltzen nintzen, baina lagun talde hau aurkitu nuen eta oso gustorabil. Gainera gorputza izatez oso alferra da eta kirolari denborarik ez badiozu eskaintzen ka-

lean zehar ibiltzen zara eta ikusi dugu osasunarentzat kirola egitea ka-lean ibiltzea baino hobea dela" dio Manolok.

Afizionatuak dira, bai, baina norberak egindako denborak badu garrantzia

eta hurrengo igandean jokatuko den lasterketarako bakoitzak jarri ditu bere denborak. Batzuk ordu eta erdi egitearekin nahikoa dute eta beste batzuk, ondoen dabilzanak, ordu eta laurdenekin konforme izango dira.

Behobiara mozorroturik

Talde honetako partaideak beteranoak dira Behobian eta Txeselek adierazi digunez "lehen Bergararik mozorrotuta joaten ginen, bata tenista jantzita lasterketa erdian tenisean jokatzen gelditzen zen eta bestea mediku jantziarekin karreraren zehar jendea aztertzen basten zen. Dena den, duela 3 urtetik hona edo karrerarako ez gara mozorrotzen".

Urtean zehar Behobiaz

aparte beste lasterketa batzuk izaten dira eta horien artean gure artean San Martinetan eta Gabon Zaharretan izaten diren karrerak daude. Baina talde honetako partaideak ez daude oso konforme bi lasterketa horien antolakuntzarekin: "gu aritzen gara lasterketa horietan, baina bertan parte hartzen dutenekin ez dute inongo detailerik. Derrigorrezkoa izan beharko litzateke denoi kamiseta bana ematea eta deskuidatzen badira hurrengoan lasterketara ez da inor joango".

Emakumezko gutxiago aintxintxiketan

Behobiara joateko izena emateko, Bolintxo kirol dendara joan beharra zegoen eta listak begiratu



Aitor Garzia eta Jose Balentziaga, 1984ean Behobia-Donostian.

GIARTZU

GIMNASIOA

Boni Laskurain, 3 behea
☎ 76 35 71
BERGARA

- AEROBIKA
- MANTENIMENDUA
- MUSKULAZIOA
- KARATEA
- NIM-JITSUA


ORDUTEGIA:
7:30-13:00 / 14:30-22:00

ondoren 110 partehar-tzaileen artean 5 bakarrik emakumezkoak ziren. Horien artean Maria Isabel Hurtado eta Marian Santxotena daude. Hurtadok 44 urte ditu eta duela 4 urte hasi zen korrika egiten: "urtean zehar mantendu egiten naiz, baina lasterketa bat pres-

tatu behar dudanean 6 bilabete lehenago, astean zehar lau aldiz entrenatzen dut".

Emakume honek lau aldiz hartu du parte Behobian eta bere ustez "Behobia bakarra da. Urte osoan zehar lasterketa prestatzen ari zara eta bara beltzerakoan ikus-

Behobian izango dira: zutik, Imanol Garzia, Asier Labaien, Mike Eguren, Salva Gonzalez, Manolo Reig eta Aitor Garzia. Makurtuta, Luisma Eguren, Basilio Aranburu, Joakin Gonzalez, Anton Barruñia eta J.M. Elexpuru.



Bergarar zaharrena eta gazteena

Pako Alonsok 67 urte ditu eta egunero Sorraluzeko futbol zelairaino korrika joan etorria egiten du. Aurtengo Donostiako maratoin parte hartu du, baina 28. km.an iasterketa utzi beharra izan zuen. Igan-dean Behobiako irteer-an izango da eta berarentzat lasterketa gogorrenetarikoa izan arren bukatzeko asmoa du.

Bestalde, Julen Otaño 12 urterekin bukatu zuen Behobia-Donostia lasterketa nahiz eta berak dioenez: "amak 8 km egiteko esan zidan, baina nik atzean utzi nuen eta osorik egin nuen. Hurrengo astean zehar fisikoki oso txarto pasatu nuen". Aurten ezin izango du parte hartu, 15 urte ditu eta proban 18 urtetik gorakoek har dezakete parte.

Goiko argazkian, Pako Alonso. Behean, Julen Otaño.



Denborarik onenak

Basilio Aranburu, 34 urtekoa, dugu herriko korralariaren artean denborarik onenak egiten dituen, Donostiako maratoin bera izan baitzen herritarren artean lehen eta iazko Behobian ere herritarren artean onena izan zen. Aranburu 25 urterekin hasi zen aintxixketan eta ordutik hona 9 maratoi eta 4 Behobia korritu ditu eta azken proba horretan bere denborarik onena ordubete eta 12 minutukoa da. Dena den herritarren artean Behobian markarik onena duen korrikalaria, ordubete eta zortzi minutukoa, Luis Fernandez da. Baina azken honi

pasa den urtean ebaketa bat egin zioten iztarrean eta horregatik aurten ez du korrituko. Aipatzekoak dira Bixente Pagaldai eta Jon Aranzabal ere. Lehenak bergararren arteko bigarren denborarik onena du ordubete eta bederatzi minutu eta horrezaz aparte, Gipuzkoan eta Estatu osoan Donostiako maratoina 16 aldiz korritu duen bakarrenetarikoa da. Aranzabalek 3. denborarik onena du, ordubete eta hamar minutukoa. Baina berak esan digenez Behobian ez du parte hartuko eta gainontzeko probetan ere ez da arituko atsedena hartu nahi du eta.

legoaren portaera ezin hobea da. Asko animatzen baitute eta niretzako probarik onena da".

Hurtadori Behobian ze denbora duen galdetu diogu, baina ez digu esan eta igandeko lasterketan berak egingo duen denborari buruz hurrengo esan digu "ez dizuet esango ze denbora egingo du-dan, baina nire mara-rik onena jeistea espero dut. Esaten badizuet eta ez baldin badut betetzen barregarri geldituko nintzateke eta".

Marian Santxotena 23 urte ditu eta 14 urtetatik ari da korrika "beti gustatu izan zait korrika egitea, horrekin gorputza puntu puntu mantentzen baitut". Santxotena Behobia 3 aldiz korritu du eta bere denborak nahiko onak dira, berak denborei inportantzia haundiegirik ematen ez dien arren.

FS
oto sistema

Appénia

**ARGAZKIAK
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, ☎ 76 00 50

**DENA
100etik**

ZURE OPARIENTZAKO

Simon Arrieta, 3

KIZKUR



**Ileapaindegia
Solariuma**

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32

ARREGUI, E.M.



AROSZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20. 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

Lan gehiago egin ala ordutegia murriztu langabezia jeisteko?



Nicolas Contreras
48 urte, langilea

Guztiok lan egitea komeni. Lan orduak jeisten postuak sortzen badira, primeran. Baina gauza bat da esan eta bestea egin.




Mari Carmen Garcia
47 urte, langilea

Beste batzuk lan egin dezaten bada, ondo dago lan orduak gutxitzea.



Eulalia Elgarresta
53 urte, etxekoandra

Beste era batera egin behar direla argi dago. Lan orduak jeistearena ez dut oso argi ikusten.



M. Vicente Montealegre
32 urte, langilea

Dagoen lana banatzea ondo ikusten dut. Hori egin beharko litzateke.

ETXAGI

Jatetxea

Afariak - Bataioak
Jaunartzeak
Eguneko menua
Gosariak - Bazkariak

Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12

BOLINTXO

*Kirola egiteko
behar den guztia*

Ibargarai 10,
☎ 76 38 32



**LASA
JATETXEA**

Bidekurutzeta 36, ☎ 76 10 55 / 76 20 29



Inoiz baino indartsuago

Pasa den igandean ospatu zen Arrigorriagan eta "inoiz baino indartsuago" lemapean 1993ko AEK Eguna.

Eta nola daiteke "inoiz baino indartsuago" gaur egun Administrazioaren aldetik AEK jasatzen ari den eraso eten-gabea ikusita?

Ba hala da, garbi dago Administrazioa berebiziko ahalegina egiten ari dela AEK ito eta desagertarazi nahian, horretara zuzentzen ditu bere ahalegin guztiak. Eta jakin beza honelako saiakerekin mesede gutxi egiten diola euskarari. AEK bezalako mugimendu bat erasotzen denean zuzen-zuzen erasotzen baita euskara bera ere. Baina hori bezain nabaria da AEK-k aurrera dirauela eta ahuldu beharrean indartu egiten duela.


Asko eta asko gara AEK-ren proiektuan sinisten dugunak eta ikasle, irakasle edota laguntzaile gisa horretan lanean dihardugunak, AEK eta era berean euskararen aldeko apostua egiten dugunak.

Bergaran ere elkartu gara laguntzaile talde batean, euskararen alde gaudelako eta euskarak AEK behar duela sinisten dugulako. Oraintsu hasi gara lanean eta gaurdaino elkartu besterik ez gara egin, baina ziur egon laister izango duzuela gure berri.

Eta noski, norbaitek gurekin lan egin nahi badu, hemen gaude edozein oportazio eta laguntzaren zai.

Euskarak behar gaituelako.

Leire Guridi



Butakatik telazko aulkira

Hilaren 5etik joan den astelehenerarte Madrileko Teatro Arniches taldea izan dugu Antzuolan eta hamaika egunotan arrakasta galanta lortu dute. Gure herrian ez dut ezagutu horrenbeste jende mugiarazi duen ekintza kulturalik, jaietako berbenak albora lagata. Bi mila laguneko herrian egunez egun 50 lagun pasa -funtzio batean sarrerak agortu omen ziren- karpa azpi hartan batzea eta Gorlara edo Trekutzera bazkaltzera joaten garenean eramaten ditugun telazko aulki horien modukoetan eserarazteak badauka meritua.

Teatro Arnichese-kook fenomenoak ez izan arren, jendearekin bat egitea lortu dute. Hain euskalduna eta euskalzalea ikusi nahi dugun Antzuola honetan gaztelaniaz egindako antzerki lanek -españoladak batzuen ustez- harrera ezin hobea jaso dute guztien artean.

Nahiz eta telebistaren konpetentzia gogorrari aurre egin behar. Ekintza kultural ustez interesgarriagoak ez dira konpetentzia hori gaingintzeko gauza izan.

Zer pentsatua ematen du erdera hutsean antzetzutako obrek halako exitoa lortzeak. Ze Lapatza-Etxeberrira ez dira erdaldunak bakarrik hurbildu. Irrifarrea ezpainetan dutela edota bakarren bat barrez itotzen ere ikusi ditugu euskaldunak. Eta neure buruari galdetzen diot euskarari eta kultur saio "intelektualagoei" bultzada eman nahian jende multzo zabal bat ez ote den ahazten, sinadura emateko orduan hain kontzientziatua dirudien herriaren kontzientzia zein den, ea inork ezagutzen duen benetako herria. Hain gaitzetsia dugun Madriletik etorri behar izan dute etxeetako butaketara lotuta zeudenak kalera ateratzeko.

Joseba Lezeta

LANBIDE HEZKUNTZA ESKOLA

IKASTAROAK

- **D base IV DATUTEGIA**
- **Mekanikoentzat ELEKTRIZITATEA**

HASIERA: Azaroak 22

IRAUPENA: 40 ordu

MATRIKULAZIOAK eta INFORMAZIO GEHIAGO: ☎ 76 24 91 / FAXA: 76 38 41

Beheko Taberna

*Menestra eta konejoo
dira gure berezitasunak.*

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

Taberna Kafetegia
EHIZTARIAK
LOS CAZADORES
Kafea da gure berezitasuna
Zubieta 26, BERGARA

LARRAÑAGA
eta **ZUBIA**

Banatzailleak

Errioxako ardoak, olioak,
esnea, lejiak...

Martokua 32, tfnoa: 764594

anezka

**Udazkenerako oihalak
eta lenzeria**

Espoloia 8, Tfnoa: 76 59 25



BARRENKALE 4 Tfnoa: 76 18 14

BERGARA
Karrozeria

Txapa - Pintura

Zubieta, 46 BERGARA

☎ 76 12 31



☐ 1950eko kintoak

Joan den igandean, urriak 31, 1950 kintoek beren anaiarteko eguna izan zuten. 28 lagun bildu ziren guztira eta, hildakoen oroimenezko meza entzun ondoren, Lasan egin zuten bazkaria. 1929an jaiotakoak direnez, datorren urtean beren 65. urteurrena ospatzeko gelditu ziren. Beraz, zorionak eta ordurarte!!



☐ 25 urte Lanbide Hezkuntzan

Alfonso Romera Lanbide Hezkuntza Institutoko irakasleak 25 urte irakaskuntzan bete berri ditu. Hori ospatzeko, bere lankideek omenaldi bazkaria eskeini zioten ostiralean **Zumelaga Jatetxean**. Alfonso Romerak 48 urte ditu eta matematika irakaslea dugu. 44 lagun bildu ziren Zumelagan Alfonsoren zilarrezko eztaiak zelebratzeko asmoz, tartean Alfonso Romeraren ondoan agertzen den Don Migel Altuna apaiza (Lanbidé Hezkuntzako lehengo Idazkari Nagusia). Bere izena eman diote eskolari. Zorionak!!



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65
BERGARA



□ **Kilometro txiki**

Joan den azaroaren 1ean **Kilometro Txiki** eguna ospatu zuten **Pertxa Elkarteko** bazkideek. 1991eko urrian **Kilometroak** Bergaran ospatu zenetik, azaroaren 1ean orduko ibilbidea bete eta bazkaltzeko biltzen dira Pertxako lagunak. Eguraldiak ere lagundu zuen eta, pasealditxo (7 kilometro inguru) egin ondoren, 50 bat lagunek San Migel-Pen izan zuten bazkaria, Pertxan berrizte lanak egiten ari baitira. Argazkian San Martzialen ikus ditzakezue. Hori sasoa, hori!!

□ **Pelota kiniela**

Moises Etxaniz bergarar gaztea izan dugu **BERRIGARA** pelota kinielako asmatzaile bakarra. Titin eta Arretzek 22 eta 19 emaitzaz (11 eta 7 erdian) irabazi zieten Unanue eta Aldazabali eta Moisesek 23.800 pta.ko saria eskuratu du. Aurreko astean ere, Irrintzin bete zen saritutako boletoa eta **Pedro Andrinua** bertako jabeak 49.560 pta.ko saria eraman zuen. Besteok aukera berri bat izango duzue aste honetan Retegi-Beloki eta Etxaniz-Errasti bikoteen arteko norgehiagokarekin. Partidua Bilbon jokatu da igandean. Jokin Etxaniz bergararrak Unanue lesionatuaren ordez jokatu du. Boletoak herriko hainbat tabernetan bete ditzakezue 200 pta.ren truke.



Etxanizek Eskubinakako Txapelketan jokatzeko aukera izango du igandean.


Zertan dihardute ba?

DAVID AZURZA



Bergarako Orfeoiko zuzendaria den 25 urteko tolosar honek lagundutako koru konposaketan 2. saria jaso zuen Tolosako Nazioarteko Abesbatzen Jaialdian.

ELSA MANSO



Andoaingo Zine eta Bideo Eskolan ikasketak burutu dituen 26 urteko bergarar hau, filmean agertzeaz gain, produkzio laguntzaile lanak bete ditu estreinatu berri den *La madre muerta* filmean.

TOKI-ONA

Bodegoia-Taberna

Eguneroko janariak / Txitxizotzak
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi 1, Tfnoa: 76 39 53

FERNANDEZ



**Oihal puskak
Oihalak**

San Antonio 3
Tfnoa: 76 22 93

Ibargarai 2
Tfnoa: 76 53 22

FOURNE

Merzeria - Lenzeria

D. Irala 5, Tfnoa: 76 25 69

Umore giroan

Lurra gastau

Gerra denporan, bi eibartar, Eibar, Bilbo eta Santander galdu ondoren, bazoiazan, oiñez gaiñera, Asturiasko lurraldietan ziar. Oñetan, nagusixenak esaten detsa bestiari:

- I, jarri eñ biar gaitxuk.

Jarri dira eta gaztiak diño:

- Au dok komerixia. Zapatak be gastau eñ biar jakuaz.

Bestiak:

- Zapatak diñok? Lurra gastau biar jakuk.

Kreditu billa

Juan zan gizon bat bankura kreditu billa. An esan zetsen:

- "Abal" bat ekartzen badozu, bai, emongo detsugu eskatzen dozuna.

- Zeiñen "abala" baiña?

- Urlixana izan leike.

Juan da gure gizona Urlixana "abal" eske. Ara onek zer erantzun zetsan:

- Esaixuek bankueri emoteko eurak "abala", neuk emongo deuta-tela dirua-ta

Pedro Zelaia

ORAIN DELA 20-25 URTEKO NOTIZIAK



Maria Angeles Manso dugu Bergarako historia guztian kontzejal kargua hartu duen lehen emakumea. Orain dela 20 urte hartu zuen kargua, 39 urte zituenean. Gerora, gutxi izan badira ere, emakumezko kontzejal banaka batzuk izan dira gure herrian. Maria Angeles, aurtengo irailaren 29an hil zen 59 urte zituela.

EMAKUME BAT KONTZEJALETARAKO HAUTAGAI

Herenegun amaitu zen "terzio sindikalaren" ordezkarietan kontzejal izateko hautagaien dokumentazioa aurkezteko epea. Bi postu daude hutsik eta hiru dira postuok betetzeko hautagaitza aurkeztu duten pertsonak, eurretari bat emakumea. Hauek dira hautagaiak: Maria Angeles Manso Andres, testileko langilea; Carlos Soriano Muñoz, Bankuko enplegatua; Francisco Retegi Aiausti, industrialia. Hilaren 16an

konpromisarioak aukeratuko dira (20 konpromisario), eta horiek izango dira hil honen 20an, kontzejal berriak aukeratuko dituztenak. Baldin eta bi postu horietakoren bat Maria Angeles Mansorentzat balitz, bera izango litzateke Bergarako historia guztian kontzejal kargua hartu duen lehengo emakumezkoa.

La Voz. Bikuña.
1973-XI-11.

Asier Madinabeitia, Ane Goenaga eta Josune Iñarrak
hemerotekatik bildutako notiziak

Aranzabal

OIHALAK

Zubieta, 32

☎ 76 11 50

MUGICA

Goxotegia



Artekale, 3
☎ 76 10 34

pastelak,
errellenoak,
tostoiak,
tartak...

ARREGI

**Eraikuntza
materialeak**

Biltegia Teilerian, Tfnoa: 76 27 93
Labegaraita Auzoa



GAZTELU

Burdinaki denda

Mintegi 1,

Tfnoa: 76 32 48 / 76 34 50

BERGARA

BONOFOTOA



M. A. Elikorobereizibat



MIKEL LASKURAIN

MIKEL LASKURAINek jaso du aste honetan BONOFOTOko saria. Aurreko BONOFOTOko argazkian agertzen zen **Santutxua Ubera** auzoan dago eta Ubera 1928. urtean **Elgetatik desanexionatu** eta Bergararekin batu zen.

MIKELek jarri du erantzun zuzena eta berarentzat dira BONOFOTOko **10.000** pztak.

ZORIONAK **MIKEL**i eta besteek segi jokatzten!!

Zein da baserri honen izena?


Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria:
10.000 Pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen:

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

Kutxa



gipuzkoa
donostia kutxa

Bergarar batek eta antzuolar batek jaso dute aste honetan SEAT Ibiza zoragarri bana!!

*Joan zen astean
eginiko zozketan
Bergarako Iralako
Kutxako
sukurtsalean tokatu
zen SEAT Ibiza
kotxea. Argazkian,
Luis Abajo, Iralako
Kutxako
sukurtsaleko
zuzendaria, Fran-
cisco Moreno
Blazquez (126.812
zenbakia) sarituari
kotxeko giltzak
ematen.*




*Eta Antzuolako
Kutxako sukurtsalean
beste SEAT ibiza bat
tokatu zen. Argazkian
ikus dezakezue Rafael
Rejano Alcaraz
(118.942 zenbakia)
saritua, Rafael
Arteaga, Antzuolako
Kutxako sukurtsaleko
zuzendariaren eskutik
kotxeko giltzak
jasotzen.*



**Abenduaren 9an beste kotxe bat
zozketatuko dugu Bergaran!!**

MANU DIAZ: "Aretxabaletaren aurka gure lehen finala izango da"

Manu Diaz, lehen taldea ezik, Bergara K.E.ko futbol talde guztietako entrenatzailea izan da. Iaz bere taldeak igoera lortu ondoren, aurten estu eta larri dabil lehen errejionalean eta oraindik ez dute partidurik irabazi.



Manu Diaz.

Kirol taldeei dirulaguntzak

1994rako Udalaren dirulaguntza jaso nahi duten kirolari eta kirol taldeek beren eskakizuna azaroaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dute Udak Kirol Zerbitzuan. Bertan 1993eko iharduerak eta aurrekontua eta datorren urterako asmoak zehaztu beharko dituzte.

Gimnasia goizetan

Mantenimendu gimnasiako taldea osatzeko pertsonak behar dira. Klaseak astelehen, asteazken eta ostiralez izango dira Kiroldegian goizeko 10etatik 11etara. Interesatuak 761929 telefono zenbakira deitu dezakete.

- Zein da azken postuetan egotearen arrazoia?

- 8 jokalaririk lesionatuta ditugula. Gazteek gehiegizko erresponsabilitatea hartu behar izan dute eta astero talde desberdinarekin jokatu dugu. Kategoria aldaketa ere nabaritzen da, dudarik ez.

- Hain gogorra al da? - Ordizia edota Legaz-

piko lehen taldeen kontra jokatzeko dugu eta Tolosako hainbat jokalaririk nazional mailan aritu dira adibidez. Kontutan izan baita Bergarako lehen taldea kategoria honetan zegoela orain 14 hilabete.

- Zein da zuen benetako maila?

- Aurrera egin dezakegula uste dugu. Lesionatu barik sailkapenaren erdi-

an egongo ginatekeela uste dut.

- Direktibaren abisurik jaso duzue?

- Gure lana hobetu lezakeen beste pertsonaren bat balego, erreleborako prest ginelan esan genion. Momentuz gurekin daude eta taldea hortik ateratzea izango da helburua. Aretxabaletaren aurka gure lehen finala izango da.

- Zer nahiago, iazko ala gaurko egoera?

- Txapelketa oso polita da baina iazko kategorian ez genuen gehiegirik ikasten. 10 eta 0 irabaztean gauza gutxi ikasten da. Aurten, gehiago borrokatu behar eta jokalarientzako askoz ere hobea da.

- Eta lehen taldera jokalaria igo ala taldea kategorian mantendu?

- Biak posible dira.

Gimnasia Erritmikoa

Larunbat honetan, azaroak 13, Gimnasia Erritmikoko Euskadiko Txapelketa jokatu da Labegarrietako Kiroldegian. Arratsaldeko 4 terdietan parte hartuko duten 8 taldeen (Bergarako Ariznoa tartean) pasea izango da, 17.30etan desfilea eta aurkezpena, 17.45etan taldekako alebin eta infantil mailako probak, 18.20etan Ana Ortega eta Maria Ereñagaren erakustaldia, 18.30etan taldekako junior eta jubenil mailako probak eta 19.15etan beste erakustaldi bat. Amaitzeko, 19.30etan, desfilea eta sari banaketa egingo dira.



Zure konfidantzako denda



Tfnoa: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE




Eskolarteko igeri txapelketak

Hona hemen Bergarako Mark Spitz eta Esther Williams-ak, argazki-kamarari begira tinko, batzuk; kasu haundirik egin gabe, beste batzuk. Lepaluzeka ere badabil hör bakarren bat fotografixa guztietan agertu beharrez.

Erretratua orain dela 15 urte ingurukoa da, eskolarteko txapelketa batean ateratakoa.

Goiko argazkian daudenak hauek dira: Giomar Goirizelaia, Miren Zubizarreta, Nerea Vicente, Jabi Moreno eta bere atzean Aitor Mujika, Josune Alberdi, Ibon Arana, Igone Arana eta Jesus Mari Reparaz.

Behekoan, berriz: Paul Garitano, Mikel Berasategi, Mikel Lizarralde eta bere atzean Aitor Mujika, Jabi Moreno eta Juanjo Basterra.



Estepan Plazaola Argazkiak: Argazki




Gaspar

**Jatetxea, Txokolategia,
Self Service-a**

Barrenkale 31

Tfnoa: 76 20 02

BERGARA



JAUJA KIROLAK

Irizar 2, Tfnoa: 76 14 95

ETXEBIZITZA

Garajea hartuko nuke alokairuan Tokiederren. ☎ 76 52 45.

Etxebizitza salgai Iparragirre kalean. ☎ 76 40 82.

Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ 79 83 50.

Etxea alokatzen da Osintxun. ☎ 76 49 60.

Pisua salgai San Lorentzon. ☎ 76 27 35.

Pertsona bat behar dugu Deustun pisua osatzeko ☎ 76 49 69.

Pisu amueblatua salgai Artekale 16an. ☎ 76 12 81.

Garajea salgai Iparragirre kalean. ☎ 76 28 52.

Pisua alokatzen da. Bulegoak jartzeko egokia. Merkea. ☎ 76 16 89.

Bergaran pisua betetzeko pertsona bat behar da. ☎ 76 55 88 / 76 56 67 (Salva).

Pisua salgai Artzamendi kaleko 13. zenbakian. ☎ 76 32 53.

Garajea salgai Ibargaraikalean. ☎ 76 00 93.

Etxea salgai Masterrekan. ☎ 76 48 30.

Pisua alokatzen da. ☎ 76 46 15.

Etxebizitza salgai Martokon. Berriztua eta merkea. ☎ 76 00 93.

Garajea salgai Bolun. 1.000.000. ☎ 76 23 37.

DENETARIK

Karabana bat salgai. la berria. ☎ 77 04 98.

Seat 1.500 SS-94465 kotxea salgai. Egoera onean. ☎ 76 42 81.

Paseorako Peugeot bizikleta salgai. ☎ 76 48 68.

Ume kotxe bat salgai. ☎ 76 02 00.

Renault 21 TXE bat salgai. 1988koa. Egoera onean. ☎ 76 38 68.

Estufa japoniarra salgai. Egoera onean. Oso merke. ☎ 76 31 23.

Nintendo bat salgai (S. Mario Bros) ☎ 76 39 34.

Kaminoko Miguel Mari Lasa bizikleta salgai. 54a. Egoera onean. ☎ 78 70 04 (Iker).

Opel Corsa Joy salgai. Oso egoera onean. 3 urte. Prezio interesgarria. ☎ 79 54 46.

Rapel berria salgai. Peltz modeloa. Prezio onean. ☎ 76 18 94 (gauzez).

Collie arrazako txakurkumak salgai. ☎ 76 64 83 (Xabier).

Renault 18 diesel bat salgai. Familiarra. ☎ 76 33 85 (iluntzean).

Korredore Look bizikleta salgai. Egoera onean. ☎ 76 64 62.

Game boy bat salgai. 10 joku. 10.000 pzta. ☎ 76 51 98 (iluntzean).

Karabana bat salgai. la berria. ☎ 77 04 98.

LANA

OHO eta ingeles (maila guztiak) klaseak ematen ditut. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Geriatría ikastaro bat egin dut eta pertsona zaharrak zainduko nituzke. ☎ 76 24 62 (Ana).

Esperientziadun emakume batek **gutxitu sikiko, elbarri edota pertsona zaharrak zainduko** lituzke. ☎ 76 53 25 / 21 34 31.

Ingeleseko klaseak ematen ditut. ☎ 76 26 63.

Ingeleseko klaseak. ☎ 76 31 36.

OHO, REM eta LZ klaseak. ☎ 76 24 31.

Emakume batek etxeak garbituko lituzke ordu batzuetan. ☎ 76 47 67.

Ordenadorez lanak pasatuko nituzke. ☎ 76 05 43.

Arratsaldez ordu batzuk lan egingo nuke. ☎ 76 21 39 (Rosi).

Latin, Euskara eta Frantses klaseak. ☎ 76 02 99.

Hildakoak

Catalina Viana Zubia (azaroak 11, 65 urte) eta *Maximo Diaz de Antoñana* (azaroak 4, 76 urte) senaremazteak

Vicente Barbero Gomez
azaroak 4, 63 urte

Jaiotakoak

Ikerne Eguren Santamaria
azaroak 4

AUTOPULLMANS ARABA

Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR ☎ 76 55 70



LIZAR

Altzariak

Dr. Fleming 5, Tfnoa: 76 16 53



a, eme...interiores



**a, eme...
interiores**

Etxeko ekipamendu osoa

Corbal 9. Tfn. 70 15 00. ABBACATE